

la perfumería

de Mercadona

2019KO UDA

KOLORE-KOKTELA

TONUZ IGOTZEKO ETA

AZAZKALAK HARRO

ERAKUSTEKO GARAIA DA

Equizki
GOSEA

**IKASI ARRISKURIK GABE BELTZARANTZEN,
ZAINDU ZURE AZALA, ETA DESKONEKTATU
ZEURE BURUA**



Nutritivo
COLOR/COR+



LABURPENEA

04 EGUZKI-GOSEA

Ikasi arriskurik gabe beltzarantzen, zaindu zure azala eta deskonektatu zeure burua. Uda konkistatzeko prest?

12 UDA-EGARRIA

Temperatura altuen aurkako antidotoa? Freskotasuna eta bizitasuna ematen duten lurrin apartak.

14 EZINBESTEKOAK FOR HIM

Elikadura orekatu bat edukitzea, ariketa fisikoa egitea eta atsedeen-orduak errespetatzea, hiru horiek ezinbestekoak dira geure burua ondo ikusteko eta ondo sentitzeko. Horri edertasun-zainketak batzen badizkiozu, emaitza perfektua da.

16 ERRITMO-ALDAKETA

Gehiago ez da hobeto! Horixe udan zeure egingo duzun edertasun-filosofia. Izan zaitetz zoriontsu, zaindu zure azala eta erakutsi zure onena.

22 EYE LOVERS

Urdina, berdea eta kobre-tonua, guztiak metalikoak. Distira eta kolorea zure begiradan.

26 ESKU ETA OINAK, NAHIERAN

Manikura eta pedikura apain-apainak nahi badituzu, esmaltatzeaz gain, limatu, leundu, hidratatu eta tratatu zure kutikulak, eman izeaiezu kolorea, zigilatu itzazu eta eman distira. Kolorea eman aurretik, pauso horiek eman behar dituzu zure azazkalak zaintzeko.

30 KOLORE-KOKTELA

Urteko garairik beroena dator, eta tonuz igotzeko garaia da. Egin kasu zure manikurari: koloreak bete-betean, *glitterra*, eta erakutsi harro zure azazkalak.

34 BIDAIETARAKO EDERTASUN-KITA

Udatik eta udako ihesaldi atseginetatik onik ateratzeko behar duzun gutzia dugu. Prest zaude hegan egiteko?



Argitaratzailea: MERCADONA SA
Fuente del Jarro industrialdea
C/ Ciudad de Liria, 5 46988 Paterna / Valencia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarrari dagozkie. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debebatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.

Azalean



Hau darama modelook:
Eguzki-hautsak aurpegian eta, itzal moduan, koral-koloreko koloretea, Water resistant betile-maskara, 09 zk. ezpain-distira eta azazkal-esmalte nutritiboa + Kolorea 873 zk. koral.

la perfumería



Eguzki-GOSEA

*Ikasi arriskurik gabe beltzarantzen, zaindu zure azala eta deskonektatu zeure burua. **Uda konkistatzeko prest?***



Eguzkia ez da zure laguna, ez eta zure etsaia ere; onena da haren onurez gozatzea eta haren kalteak saihestea. Beltzarandu bai, baina arduraz. Babes-faktorea duten kremek aukera ematen dute modu osasungarrian beltzarantzeko, erredurarik gabe; gainera, tonu naturalagoa, iraunkorragoa eta politagoa lortzen dugu.



Eguzkia hartzeko aholkuak



Aurpegirako eguzki-fluidoa, 50+ faktorekoa, adinaren aurkakoa



Eguzkitako espraia, 30 faktorekoa

2 1ean, ezpain-babesa eta aurpegi-krema, 30 faktorekoa



✓ Lehen araua: babestu zaitez urte osoan, eta ez bakarrik hondartzan edo igerilekuan zaudenean. Gure azala egunero zaindu behar dugu: hirian paseatzera ateratzen garenean, terraza batean kafea hartzen dugunean, aire librean kirola egiten dugunean, mendira joaten garenean...

✓ Komeni da behar adina babes-krema ematea, eta ongi zabaltzea gorputzean eta aurpegian, etxetik atera baino ordu-erdi lehenago.

✓ Berrito eman crema bi orduz behin.

✓ Aukeratu zure larruzal-fototipoarentzako egokia den faktorea.

✓ Zure aliatuak: kapela, pareoa, eguzkitako betaurrekoak...

✓ Kontuan hartu behar dugu urarekiko erresistentea den babesa erabili arren berrito eman behar dela crema itsasotik edo igerilekutik ateratzen garenean; hartara, ziurtatuko dugu azala uneoro dagoela babestuta.

✓ Saihestu eguzkiak gehien jotzen duen orduak (12:00etatik 16:00etara), eta pixkanaka hasi.

✓ Arreta berezia jarri zona sentikorretan, hala nola sudurrean, ezpainetan, belarrietan, sorbaldetan, garondoan eta oinbularretan.



Eguzkitako espraia, 50+ faktorekoa




Eguzkitako esnea, 30 faktorekoa



Aurpegiko gel gardena, 50+ faktorekoa



Gorputzeko eguzki-babes gardena (espraia), 50+ faktorekoa



Formatuak: krema, fluidoa, esnea edo olioia. Hautatu erosen egiten zaizun testura, zure azal-motari hobekien doakiona. Eta beltzarandu zaitetz.



Eguzkitako espraia, 15 faktorekoa



Eguzkitako esnea, 20 faktorekoa



Beltzarantzeko eguzki-olioa, 30 faktorekoa, ukitu lehorra



GOGOAN IZAN

Ura maiz edan eguzkitan egon
aurretik, bitartean eta ondoren.



Eta eguzki-bainuaren ondoren?

Eguzkia hartu ondoren, ur epelarekin edo hotzarekin duxatzea komeni da; ez duxatu ur beroarekin, azala are gehiago lehortzen baitu. Ondoren, eman *after sun* krema, zure azala suspertzeko, goxatzeko, freskatzeko eta hidratatzeko.



After sun indarberritzailea, beltzaran-kolorea luzaroago iraunarazteko



After sun krema, gelean, aloearekin



*Esku leun eta
zainduak*

UDA-EGARRIA

Temperatura altuen aurkako antidotoa? Freskotasuna eta bizitasuna ematen duten lurrin apartak.



1. **Acción 9.60** gizonentzako sport water-a / 2. **Vuela** emakumeentzako eau de toilette / 3. **Como tú Viento** gizonentzako eau de toilette / 4. **Simply Flowers Azahar** emakumeentzako eau de toilette / 5. **Monogotas Manzana** emakumeentzako eau de toilette / 6. **Woman 9.60** emakumeentzako sport water-a / 7. **Desafío Sport** gizonentzako eau de toilette.



Waterproof
summer look

Water Resistant betile-maskara + Eyeliner Waterproof

EZINBESTEKOAK *FOR HIM*

Elikadura orekatu bat edukitzea, ariketa fisikoa egitea eta atseden-orduak errespetatzea: hiru horiek ezinbestekoak dira geure burua ondo ikusteko eta ondo sentitzeko. Gainera, horri edertasun-zainketak batzen badizkiozu, emaitza perfektua da.





BAI AURPEGIA ONA!

Zure itxura ederraz harro egoteko, gomendatzen da aurpegia egunero, goizez eta gauzez, hidratatzea. **9.60 zimurren eta adinaren aurkako kremak** sendotasuna eta nutrizioa ematen ditu. **9.60 krema hidratatzaile babesleak** larruazala hidratatzen du, eta leun eta garden uzten. 6 faktoreko eguzki-iragazkiak ditu, azala zaindu eta babesteko.



GIZON-KONTUAK

Suspertu azala bizarra egin ondoren, *after shave*-ak erabilita. Gelean, kremak edo lozioan, hautatu zure azal-motara hobekien egokitzen dena, larruazala hidratatzeko eta mimatzeko. Aloe veraren estraktu naturalak dituen **After Shave gelak** hidratatu eta zaindu egiten du. **After Shave baltsamoa** ezin hobea da azal sentikorretarako, erraz narritatzen direnetarako. Kamamila-estratu ekologikoak ditu, eta E bitaminaz aberastuta dago, zeinak azala arintzen eta hidratatzen baitu, bizarra egin ondoren.

GORPUTZ-KONTUA

Landare-aktiboak dituen **9.60 sabelerako gel erredutzitzaileak** sabelaldea eta gerri-buelta sendotzen ditu, eta zehazki zona horietako koipe-metaketan eragiten du. **Gizonezkoentzako esprai-desodorante ikusezinak** orbanik ez du uzten arropetan.

la perfumería

ERRITMO- ALDAKETA

Gehiago ez da hobeto! Horixe udan zeure egingo duzun edertasun-filosofia. Izan zaitetz zorientsu, zaindu zure azala eta erakutsi zure onena.

KEINU SOIL BAT

Olo-urak larruzala goxatzen du, eta larruzal sentikor eta delikatuak hidratatzen eta freskotasun eta ongizatea ematen dizkie. Hondartzan edo igerilekuan egun-pasa egin ondoren, bildu zure azala lanbro leun eta fin batean; aurpegia eta gorputza freskatuko eta goxatuko dizkizu.



LIPS, LIPS!

Hidratatu eta elikatu zure ezpainak, eta babestu itzazu tenperatura altuetatik eta eguzki-izpietatik. Eraman beti poltsan **15 faktoreko ezpainetako babesia.**

BEAUTY TIP

Aurpegia eta gorputza ur hotzarekin garbitzea, zirkulazioa suspertzeko eta hilabete beroetan tonu ona edukitzeko sekretu hutsezina.





GUZTIOK BAT

Helburua da azala leun eta hidratatuta edukitzea. Horretarako, ezinbestekoa da beroa egiten duen hilabeteetan bereziki zaintzea. Esfoliatu ezazu astean behin gutxienez, beltzaran iraun dezan eta elikatu ondoren distiratsu gera dadin. **Bainurako gel esfoliatzaile suabea** gomendatzen dizugu, eta azala garbitzeko **Passion Fruit bainurako gela** edo **Aloe Vera bainurako dermo-gela**. Ondoren, hidratatu zure azala Mercadonaren lurrindegian dituzun krema hidratatzaileekin. Hautatu beti zure beharretara ongaitzen dena.



48 h-KO ERAGINA

**Emakumeentzako
esprai desodorante
ikusezina.**

Eraginkortasuna eta
orbanen aurkako
kontrola.



LAGUNTZA-EKIPOA

Gogoan izan bikini-operazioak urte osoa irauten duela, eta ez udaren aurreko hilabeteak bakarrik. Hona hemen gorputza zaintzen eta lirain egoten lagunduko dizuten tratamendu batzuk, betiere kontuan hartuta behar bezala jan behar dela, egunero ariketa fisikoa egin behar dela eta egunean gutxi gorabehera 2 litro ur edan behar direla.

✓ **Drenapur makilatxoak**, andere-mahats beltzarekin, txikoria-belarrarekin eta te berdearekin. Hotzean presta daiteke, eta egun osoan zehar har dezakezu, freskagarri gisa.

✓ **Top Silueta**. Elikadura-osagarri hau zenbait te-motaren estraktuz eta guarana-haziz osatuta dago; pisua galarazten du, eta koipea erretzen. Erabiltzeko modua: goizero, disolbatu zorro bateko edukia 500 ml uretan, nahastu, eta prest duzu hartzeko.

✓ **Lipo Reductor**. L-karnitinaz, guaranaz eta ananaz egina. Guaranak lipidoak degradatzen ditu. Gomendatzen da anpoila bat hartzea goizetan eta beste bat bazkariaren aurretik, bere horretan edo baso bete uretan disolbatuta. Emaizta hobek lortzeko, hartu ariketa fisikoa egin aurretik.

✓ **Limoi-zaporeko kolagenoa**. Kolagenoz, magnesioz, azido hialuronikoz eta C bitaminaz egindako elikadura-osagarria; kolagenoa sortzen laguntzen du, hezurrek ondo funtziona dezaten. Bota ontzitxo bat baso bete uretan, eta eragin berehala, nahasketari pausatzen utzi gabe.





Eguzki-krema

50+ faktoreko babes-krema,
kolorearekin



BE GREEN

Bilatu hobekien ematen dizun tonua, eta eman ezazu betzaletan eta betileetan, begiak protagonista izango diren aparteko *looka* eduki dezazun.

EYE LOVERS

**Urdina, berdea eta kobre-tonua, guztiak metalikoak.
Distira eta kolorea zure begiradan.**



BLUE SUMMER

Begiak markatzeko arkatza eta kolore bereko itzal metalizatua nahikoa dira guztiok nahi izaten dugun ilun-efektua sortzeko. **Eye Lovers** itzalen testurak xafla metaliko bat sortzen du betazeletan, eta kolore krematsu eta bizia ematen die.



MAISU-UKITUA

Definizioa eta distira betileetan. Eye Lovers maskarak sustraietatik puntara ematen dira, emaitza perfektua lortzeko. Horrez gain, ohiko maskararen isla gisa ere erabil daitezke, kolorea puntetan bakarrik emanda.

KOBRE BIZIA

Nude ezpainak bigarren mailan geratzen dira, begiradari distira egiten uzteko. Tonu kobre metalizatuak dituen *look* hau bikaina da udako gau luzeetarako.



BE GREEN

Hydra-confort makillajea, 3 zk. beix ertaina (1) / Begi-itzal matea, 13 zk. krema (2) / Eye Lovers begi-itzala, 01 zk. berde metalikoa (3) / Eye Lovers begi-arkatza, 105 zk. berdea (4) / Eye Lovers betile-maskara, 01 zk. berde metalikoa (5) / Koloretea, 03 zk. urre-kolorea (6) / Color Fix ezpainetako barra, 01 zk. lur-arrosa (7).



BLUE SUMMER

Hydra-confort makillajea, 03 zk. beix ertaina (1) / Eye Lovers begi-itzala, 02 zk. urdin metalikoa (8) / Eye Lovers begi-itzala, 03 zk. kobre metalikoa (14) / Eye Lovers begi-arkatza, 104 zk. urdina (9) / Eye Lovers betile-maskara, 02 zk. urdin metalikoa (10) / Koloretea, 03 zk. urre-kolorea (6) / Color Fix ezpainetako barra, 02 zk. arrosa leuna (11) / Azazkal-esmalte nutritiboa + Kolorea 881 zk. urdin perlakara (12).



KOBRE BIZIA

Hydra-confort makillajea, 03 zk. beix ertaina (1) / Eye Lovers begi-itzala, 03 zk. kobre metalikoa (14) / Eye Lovers begi-arkatza, 106 zk. kobre-kolorea (15) / Eye Lovers betile-maskara, 03 zk. kobre metalikoa (13) / Eguzki-hautsak (16) / Ezpain-distira, 09 zk. (17).



ESKU ETA OINAK, NAHIERAN

Manikura eta pedikura apain-apainak nahi badituzu, esmaltatzeaz gain, limatu, leundu, hidratatu eta tratatu zure kutikulak, eman iezaiezu kolorea, zigilatu itzazu eta eman distira. Kolorea eman aurretik, pauso horiek eman behar dituzu zure azazkalak zaintzeko.

7 ARAU AZAZKAL PERFEKTUAK EDUKITZEKO

1

Limatu azazkalak, beti noranzko berean, hautsi edo ezpaldu ez daitezten.

Beira-zuntzeko lima



Azazkal-leungailua

2

Leundu, lisoak eta uniformeak geratu arte.

3

Tratatu kutikulak. Eman horietan **Kutikulak kentzeko gela** eta utzi 1 minutu eragiten. Ondoren, garbitu eskuak ur eta xaboiarekin, eta kendu kutikulak **Laranjondo-ziriekin** eta **Kutikulak ebakitzeko** arekin, hala behar izanez gero.

4

Babestu eta sendotu **9 1ean oinarri bitaminaduna eta lisatzailea** emanda.



5

Eman nahi duzun kolorea. Eman bi esmalte-geruza, azazkalen kolorea areagotzeko eta zigilatzeko.



Azazkal-esmalte nutritiboa + Kolorea 877 zk. arrosa

6

Distira-gelak, azkar lehortzekoak, lehortzen eta zigilatzen lagunduko dio esmalteari, gehiago iraun dezan.



7

Elikatu azazkalak eta kutikulak **bitamina-olioarekin.**

Eta, azkenik, hidratatu eskuak eta oinak Mercadonako lurrindegian dituzun kremak erabilita. Hautatu zure beharretara ongien egokitzen dena.

EZINBESTEKOAK



Hatz-bereizlea



Oinetako azazkal-moztekoa



Azazkal-guraizeak

Tanta lehortzaileak




Oinetako gogorguneetarako karrakailua



Manikurako pilula eferbeszenteak





BETILE-MASKARA METALIKOA

EYE LOVERS
deliplus



BEGI-ARKATZ METALIKOA



BEGHTZAL METALIKOA



KOLORE-KOKTELA

Urteko garairik beroena dator, eta tonuz igotzeko garaia da. Egin kasu zure manikurari: koloreak bete-bete, glitterra, eta erakutsi harro zure azazkalak.

HAPPY hour

Ezkerreko orrian, **Ezpaindistira 10 zk.** eta **Azazkal-esmalte nutritiboa + Kolorea 873 zk. korala.**
Orri honetan, **Azazkal-esmalte nutritiboa + Kolorea 875 zk. berdea.**

la perfumería





TOPA eguzkiari

Ezpain-distira 11
zk., Azazkal-esmalte
nutritiboa + Kolorea 884
zk. zuri perlakara eta
879 zk. *glitterra*.



so fresh!

Azazkal-esmalte nutritiboa +
Kolorea 882 zk. marrubi perlakara.



Bidaietarako

EDERTASUN-KITA

Udatik eta udako ihesaldi atseginetatik onik ateratzeko behar duzun guztia dugu. Prest zaude hegan egiteko?



Eskuak garbitzeko gela (uretan pasatu beharrik ez dago).
Higienea eta freskotasuna: eduki eskuak garbi, egun osoan.



Paper-zapi desodoranteak
Babesa, leuntasuna eta freskotasuna.



Eguzkitako esnea 50+ faktorekoa, bidaia-formatua
Zaindu azala, edozein lekutan zaudela ere.



Malko hidratatzaileak
Hidratazio bizkorra eta naturala ingurumen-faktoreen ondorioz begiak lehor dituzunerako. Begi-kolirioa, monodosietan, egoki-egokiak beti eskura edukitzeko.




Urratuen kontrako barra, oinetarako
Zure lagun ikusezina: anpoila eta urratuetatik babesten ditu oinak.



Txikiertzako TRAVEL LIST-A



Superman eau de toilette




Minnie Mouse gorputzerako kolonia



Justice League haurrentzako hortzetako gela



Henry El Monstruo Feliz eta Vampirina hortzetako eskuilak



Zitadala-saigarria, roll-on
Intsektu, medusa edo asunen zitadaren ondoren, azala freskatzen eta goxatzen du.

Uda-garaia da, aire librean dibertitzeko eta abenturak bizitzeko garaia, etxeko txikiekin gozatzekoa.

Catapum arnika-barra
Azala leuntzeko eta suspertzeko.



Haurrentzako after sun lozioa
Aloe vera, mimosa eta hilerri-lilia ditu. Osagai horiek funtsezkoak dira haurren azala goxatzeko, hidratatzeko eta leheneratzeko.



Haurrentzako eguzki-esnea eta Eguzki-krema, 50+ faktorekoak



after sun
MANGO & TIAREA

